2026ko IRAILA-URRIA

# BERMEON ZER?



Irailaren 26tik 30era

## San Migel auzoko jaiak

Urriaren 20tik 24ra

## Mareak jaialdia

Bermeoko Udala

# Oraindik ez zara hurbildu
# BIKING GELA berrira?

## Irailean ere ATE IREKIAK biking saioetan !!



astelehena: 8:10, 9:10, 17:00
asteartea: 8:10, 17:00, 20:00
asteazkena: 8:10, 9:10, 17:00
osteguna: 8:10, 17:00,20:00
ostirala: 8:10, 9:10, 17:00
larunbata: 9:10
igandea: 9:10

## Erabilera librea

Saiorik ez dagoenean txirrinduak erabili daitezke

---

# eta azarotik aurrera
# ESKALADA ikastaroak



**adina:**
8 urtetik gorakoentzako..

**eguna:**
ostirala

**ordua:**
17:00etatik aurrera.

**izena emateko epea:**
irailaren 21ean zabalduko da.

**izen emateak:**
web orria, app-a, kiroldegiko salmenta makinak.

Bermeo Kirolak

# IRAILA

## 18

**Barikua**
*Bekoportalen*
*18:30ean*

**BAKARRIZKETA**

### ‘GREGORIA’, BEATRIZ EGIZABAL

Gregoria bakarrizketak umorea eta ikuspegi feminista uztartuko ditu. Eguneroko bizitzako egoerak, emakumeen bizipenak eta oraindik indarrean dauden desberdinkeriak izango ditu hizpide, barrearen bidez hausnarketa eragiteko

Ekitaldian, halaber, Bermeoko Ahalduntzerako Gune Feminista sortzeko prozesu irekia aurkeztuko da. Beste herri batzuetako ahalduntze feministarako etxeen esperientziak ezagutzeko aukera ere izango duzu, Bermeoko gunea nolakoa izan daitekeen irudikatzen hasteko

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

*Goiko Plazatik*
*20:00etan*

**KALEJIRA**

### KANTA KANTA LORUE

Herriko jaiak borobiltzeko eta asteburuko estropadak girotzeko kalejira

*Antolatzailea:* ***Kanta kanta lorue***



## 19

**Zapatua**
*Portuan*
*18:00etan*

**KIROLA**

### ARRAUNA

### BERMEO HIRIKO XLIV IKURRIÑA – BBK BANDERA

*Antolatzailea:* ***Bermeo Arraun Elkartea***

## 24

**Eguena**
*Arrantzaleen Museoan*
*18:00-20:00*

**MAHAI-INGURUA**

### ‘BERMEOKO ANDRAK indarra, trebezia eta memoria’

Olatuaren enbatean aldi baterako erakusketaren inguruan Asier Romerok egingo duen bisita gidatu bereziaren ostean, Bermeoko emakumeen paperari eskainitako tarte berezia izango dugu

Topaketa honetan, hainbat arlotako emakumeek, itsasoari eta herriaren garapenari lotutako arlo ezberdinetakoek, euren ibilbidea, esperientzia eta memoria historikoa partekatuko dituzte entzuleekin

Ez galdu Bermeoko emakumeen lana eta historia gertutik ezagutzeko aukera paregabe hau!

Informazioa eta erreserbak: 94 688 11 71
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Erreserba egitea beharrezkoa da, aforo mugatua

Doan

*Antolatzailea:* ***Arrantzaleen Museoa***

# SAN MIGEL AUZOKO JAIAK

**26** **Zapatua**

**10:00.** O'Barre, Brunch & Craft

**13:00.** Txosna zabaldu

**15:00.** Auzo bazkaria

**18:30.** Umeentzako jolas libreak, mahai jokoak, bingoa, eskulanak...

**19:30.** Vermuteue musikarekin

**21:00.** Berriztu erromeria, txitxiburduntxia eta zozketak

**00:00.** Gaua Sound

**29** **Martitzena**

**San Migel Eguna**

**12:30.** Meza

**Ondoren.** Hamaiketakoa Arrekatxutxa taldeak girotuta

**30** **Martitzena**

**San Jeronimo Eguna**

**12:30.** Meza

**Ondoren.** Kinitoa eta pastak, Arrekatxutxa taldeak girotuta

*Antolatzailea:* ***Mikeltarrak auzo elkartea***

*Laguntzailea:* ***Bermeoko Udala***

SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA) 900.840.111

AHOLKULARITZA: Biktima, senide, eta profesionalentzat. Doakoa, ez da fakturan agertzen

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA OSOA (24 ORDU) 900.840.977

GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA 946.179.160

- Informazioa eskatzeak ez zaitu beste pausorik ematera behartzen
- Behar duzun edozertarako deitu

**INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEA GUZTION ARDURA DA**

BERMEOKO UDALA

**04** **Domeka**
*10:30-14:00*




**EKITALDIA**

# URDAIBAI EXPRES

Gai izango zarete Bermeoko kaleetan zehar pistak jarraitu eta Ekoetxea Urdaibaira modu jasangarrienean iristeko?
Norentzat? 11-14 urte bitartekoei zuzenduta
Izen-ematea: GIZen, plaza kopurua bete arte. Plaza kopuru mugatua (16)
INFO + eta izen-ematea: www.gizbermeo.blogspot.com
688 819 950 (WhatsApp zenbakia) - 946179158 - giz@bermeo.eus

*Antolatzaileak:* ***Bermeoko Udala eta Ekoetxea Urdaibai***

**06** **Martitzena**
*Udaletxean*
*19:00-20:00*

**EUROPAKO ONDARE JARDUNALDIAK**

# BERMEOKO UDALETXEA: ERAIKINA BERBIZTU

2011ko apirilaren 11n, Bermeoko Alde Zaharrean sute handi bat izan zen;  70 bermeotar etxebizitza barik gelditu ziren. Bermeoko udaletxea ere kaltetu zen, eta 2025era arte ez zen hasi bere betiko funtzioa betetzen. Edifizioaren berbizitzea azaltzeko Arkaitz Izarra arkitektoa izango dugu, eta proiektu honetan izan duen partaidetza pertsonala azalduko digu.

Gaztelaniaz

Erreserbak: turismoa@bermeo.eus / 94 617 91 54

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**08** **Eguena**
*Liburutegian*
*18:30ean*

**LIBURU AURKEZPENA**

# 'ZUHAITZAK ETA ARBOLAK EUSKAL HERRIAN'
# Jakoba Errekondo




*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**09** **Barikua**
*Erroxaperen lokalean*
*19:00etan*

**EKITALDIA**

# BINGOA

*Antolatzailea:* ***Erroxape Emakumeen Elkartea***

**10** **Zapatua**
*Udaletxean*
*12:30ean*

### OMENALDIA
## URREZKO DOMINA

Bitor Uriarte Anasagastiri Urrezko Domina emateko ekitaldi ofiziala

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



**11** **Domeka**
*Bermeoko Herri Eskolako karpa nagusian*
*12:00etan*

### JAIALDIA
## 2021 ETA 2025EAN JAIOTAKO UMEEN JAIALDIA

Motx pailazoaren emanaldia

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



**15** **Eguena**
*Arrantzaleen Museoan*
*18:00-20:00*

### EUROPAKO ONDARE JARDUNALDIAK
## ‘BAJURA: ONDAREA ARRISKUAN (2016-2026)’

2016an, J.A. Apraiz *Koiotek* Bermeoko bajura-flotaren egoera jaso zuen Arrantzaleak eta Itsasontziak lanean. Hamar urte geroago, Eutsi, berpiztu eta berrimajinatu lelopean, gure itsasertzeko arrantzaren biziraupena auzitan jarri duen hamarkada aztertuko du berriro. Hitzaldi hau artisau-arrantza berrimajinatzeko gonbidapena da, gure ondarea museoko pieza huts bihur ez dadin eta Bermeok bizirik jarrai dezan

Informazioa eta erreserbak: 94 688 11 71
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Erreserba egitea beharrezkoa da, aforo mugatua

Doan

*Antolatzailea:* ***Arrantzaleen Museoa***

**16** **Barikua**
*Sanjuanportalen*
*18:00etan*

### BISITA GIDATUA
## BERMEOKO ERDI AROKO HARRESIRA ETA BERTAKO ZAZPI PORTALETARA BISITA GIDATUA, BITOR URIARTEREN OMENEZ

Izen-ematea: Bermeoko Turismo Bulegoan

*Antolatzaileak:* ***Rober Garay eta Asier Romero***



**17** **Zapatua**
*Gizarte eta Kultura Etxean*
*Goizean*

## ASANBLADA IREKIA
## 'BERMEOKO AHALDUNTZERAKO GUNE FEMINISTA ELKARREKIN ERAIKITZEN'

Saioan, etorkizuneko gunearen izaera, funtzioak, erabilerak, antolaketa-eredua eta lehentasunak landuko dira. Era berean, proiektua errealitate bihurtzeko bide-orria adosten hasiko dira parte-hartzaileak
Ahalduntzerako Gune Feminista nolakoa izatea nahi duzu? Zer beharri erantzun beharko lieke? Zer jarduera eta erabilera izan beharko lituzke?
Zure iritzia eta ekarpenak behar ditugu

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**18** **Domeka**
*Santa Eufemia elizan*
*12:00etan*

## DENDA SOLIDARIOA
## KIDENDA

Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua

*Antolatzailea:* ***Kidenda***

**20** **Martitzena**
*Udaletxean*
*19:00-20:00*

## EUROPAKO ONDARE JARDUNALDIAK
## BERMEOKO UDALETXEA: ERAIKINA BERBIZTU

2011ko apirilaren 11n, Bermeoko Alde Zaharrean sute handi bat izan zen;  70 bermeotar etxebizitza barik gelditu ziren. Bermeoko udaletxea ere

kaltetu zen, eta 2025era arte ez zen hasi bere betiko funtzioa betetzen. Edifizioaren berbizitzea azaltzeko Arkaitz Izarra arkitektoa izango dugu, eta proiektu honetan izan duen partaidetza pertsonala azalduko digu

Euskaraz

Erreserbak: turismoa@bermeo.eus / 94 617 91 54

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

Aurum nostrum non est aurum vulgui

# MAREAK
## JAIALDIA

**Tradizioa eta abangoardia herri kulturan**

**URRIA 20-24**
**OCTUBRE**
12.Ed 2026 **BERMEO**



### 20 asteartea
Nestor Basterretxea Aretoa.
19:00 h. / **DOAN**

**ARCADIA**
Paul Wright
Dokumentala

### 21 asteazkena
Arrantzaleen Museoa.
18:30 h. / **DOAN**

**AMELI KONTALARIA**
Amaia Elizagoien eta Itziar Olague
Aho narrazioa musikatua helduentzat

### 22 osteguna
Nestor Basterretxea Aretoa.
19:00 h. / **DOAN**

**ODA MARITIMA**
Yohann Villanua eta Cristophe Barennes
Zine-Kontzertua

### 23 ostirala
Arrantzaleen Museoa.
18:30 h. / **DOAN**

**TRISTES PUPILAS**
Vida y muerte de las mascaronas de proa.
Jorge Luis Marzo
Liburu aurkezpena eta hitzaldia

Bermeoko Kafe Antzokia.
20:30 h. / **6€**

**HARRIA**
Folk-Rock Kontzertua

### 24 larunbata
Plaza Mugatuak.
11:00 h. / **DOAN**

**SANTIMAMIÑERA BISITA**
J. C. Quintana, Arkeologoaren parte hartzearekin
Erreserbak:
mb2000.elkartea@gmail.com

Musika eskolako aterpea.
19:00 h. / **DOAN**

**MUINA**
Zalantza baten itzala
Kontzertua

Bermeoko Kafe Antzokia.
21:30 h. / **8€**

**SOPHIA DJEBEL ROSE**
Kontzertua

**IRAUN**
Amaia Elizaran & Neonymus
Dantza eta musika

mareakjaialdia

Bizkaia arrantzaleen museoa · mb 2000 · Bermeoko Udala

**22** **Eguena**
*Arrantzaleen Museoan*
*18:00-20:00*

## MAHAI-INGURUA
## ‘BAJURA: EUTSI, BERPIZTU ETA BERRIMAJINATU‘

Bermeoko bajura-flotaren eta portuko lanaren etorkizuna aztertuko dugu bi saiotan. Arrantzale erretiratuek, portuko langile gazteek eta Nautika Eskolako ikasleek beren esperientziak eta etorkizuneko ikuspegia elkarbanatuko dute, gure itsas ondarea ezagutu, babestu eta berrimajinatzeko. Belaunaldien arteko topaketa izango da

Informazioa eta erreserbak: 94 688 11 71/ arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Erreserba egitea beharrezkoa da, aforo mugatua

Doan

*Antolatzailea:* ***Arrantzaleen Museoa***

*Liburutegian*
*18:30-20:00*

## OHIKO IRAKURLE TXOKOA
## ‘AZUKREA BELAZEETAN’, Inazio Mujika Iraola

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***




**23** **Barikua**
*Goiko plazatik*
*20:00etan*

## KALEJIRA
## KANTA KANTA LORUE

Herritar kantuzale guztiak animatzen ditugu gurekin batera, euskal kantugintza herrian zabaltzera

Kantatzen duen herria... bizirik dagoen herria delako!

*Antolatzailea:* ***Kanta kanta lorue***

## 24 **Zapatua**

*Goiko plazan*
*09:00-19:00*

### MERKATUA
## BIGARREN ESKUKO AZOKA

Aldatu, trukatu, erosi, eman bizi berria etxean dituzun gauzei, birziklatu, kontsumo jasangarri baten bidean

*Antolatzaileak:* ***Haitz Nagusije auzo elkartea eta Bermeoko Udala***

*Udaletxean*
*10:00etan*

### BISITA GIDATUA
## UDALETXEA BARRUTIK

Erreserbak: turismoa@bermeo.eus / 94 617 91 54

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

## 24 **Zapatua**

*Nestor Basterretxea aretoan*
*11:30ean*

### HITZALDIA
## 'ESNATU ALA HIL'

Esnatu ala hil euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan hitzaldia.
Hizlaria: Garikoitz Goikoetxea

Esnatu dinamikaren aurkezpena. Hizlaria: Arritxu Zelaia (UEMA)

Ondoren, Triki-bertso kalejira, Lameran eta Portuzarrean euskararen ahalduntzea eta biziraupena gaia ardatz. Arrekatxutxa, Koldo Gezuraga eta Ibai Amillategi

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***




## 28 **Eguaztena**

*Liburutegian*
*18:30-20:00*

### IRAKURLE TXOKO FEMINISTA
## 'EZ ERRAN INORI', Maddi Ane Txoperena

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



**29** **Eguena**
*Arrantzaleen Museoan*
*18:00-20:00*

## MAHAI-INGURUA
## 'BAJURA: EUTSI, BERPIZTU ETA BERRIMAJINATU'

Bermeoko bajura-flotaren eta portuko lanaren etorkizuna aztertuko dugu bi saiotan. Arrantzale erretiratuek, portuko langile gazteek eta Nautika Eskolako ikasleek beren esperientziak eta etorkizuneko ikuspegia elkarbanatuko dute, gure itsas ondarea ezagutu, babestu eta berrimajinatzeko. Belaunaldien arteko topaketa izango da

Informazioa eta erreserbak: 94 688 11 71
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Erreserba egitea beharrezkoa da, aforo mugatua

Doan

*Antolatzailea:* ***Arrantzaleen Museoa***

*Nestor Basterretxea aretoan*
*19:00etan*

## EUROPAKO ONDARE JARDUNALDIAK
## 'HAUSNARKETA: BERMEOKO ERAIKIN GARAIKIDEEN ETORKIZUNA', mahai-ingurua

Bermeok arkitektura garaikide oso aberatsa dauka, batez ere, Pedro Ispizua, Teodoro Anasagasti eta Fernando Arzadun arkitekto bermeotarren lana. Zer funtzio izan beharko lukete eraikin garaikide publiko edo erdi-publikoek etorkizuneko Bermeon? Mahai-inguru honetan, beharbada, ez dugu irtenbide zehatzik aurkituko, baina hausnarketarako gune aproposa izan daiteke. Arkitektoak, ekonomialariak, historialariak eta politikoak izango dira mahai-inguruan

Erreserbak: turismoa@bermeo.eus / 94 617 91 54

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**30** **Barikua**
*Liburutegian*
*18:00etan*

## FILM EMANALDIA
## TXIKIZINE

Umeentzako filma jarriko da umeentzako liburutegian

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**30** **Barikua**
*Nestor Basterretxea aretoan*
*20:00etan*




## ANTZERKIA
## 'TRAJEA', Txalo producciones

Sinopsia: Hiriburuko saltoki handietako merkealdiaren lehen eguna da. Jendea tropelean sartu da eta istripu bat izan da. Eraikinaren erraietan, segurtasun-zaintzaile batek negozio-gizon bat galdekatu du, jantzi bat erostera etorri delako eta gertakariekin zerikusia izan duelako. Baina zein dira egitateak zehazki? Eta zer arrisku dakarkie bi pertsona horiei? Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza dira muntaia izugarri, itogarri eta aldi berean ernagarri honen protagonistak, lurpeko interpretazio-duelu batean.

Aktoreak: Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza

Zuzendaria: Begoña Bilbao Lejarzegi

Sarrerea: 11 € (deskontudunak 8,25€ leihatilan bakarrik )
Sarrerak salgai urriaren 19tik aurrera, Gizarte eta Kultura Etxean eta udalaren webgunean

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

***Bizkaiko Foru Aldundiak lagundutako ekintza***

*Erroxaperen lokalean*
*19:00etan*

## FILM EMANALDIA
## 'A TODO TREN 2'

*Antolatzailea:* ***Erroxape Emakumeen Elkartea***

**31** **Zapatua**
*Arrantzaleen Museoan*
*11:30-13:00*

## UMEENTZAKO TAILERRA
## ARIMEN GAUA

Misterioz betetako egun hauetan, elkartu gurekin museoan.

Tradizioak eta artea lotuz, gure txikienek sormena sustatuz, beraien eskulan tematikoa sortuko dute.

Adina: 4 - 10 urte

Prezia: 1 € ume bakoitzeko

Informazioa eta erreserbak: 94 688 11 71
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Erreserba egitea beharrezkoa da, aforo mugatua

*Antolatzailea:* ***Arrantzaleen Museoa***

# Kultur Zerbitzuak
## Urritik aurrera

### BEKOPORTALE

Mendoza Kardenala kalean

0-5 urte bitarteko ume eta euren gurasoentzat

Astelehenetik eguenera: 17:00-19:00

Barikuak: 17:00-20:00



### LUDOTEKA

Urriaren 2an hasiko da martxan

# KZ GUNEA

**IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK**

Urriaren 8an:
13-30-15:30 / 15:30-17:30

Zubiaur tar Kepa 26-28 . 1. solairuan (udal-azokan)
Tel.: 944033325. www.kzgunea.eus
tutor.bermeo@kzgunea.net

# GIZ

## AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA

**Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulua**
**Noiz?** 2026ko urritik 2027ko maiatzera arte (12 asteburu).
**Non?** Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxean.
Ordutegia: Zapatuetan (10:00-18:30).
Baldintzak: 18 urte izatea edo 2027an betetzea, DBHko titulazioa izatea eta euskaraz jakitea.
Izen-ematea: GIZen, plaza kopurua bete arte. Plaza kopuru mugatua
**INFO + eta izen-ematea www.gizbermeo.blogspot.com - 688 819 950** (WhatsApp zenbakia) - 946179158 - giz@bermeo.eus



# IKASTAROAK

## BARRUETA ARTE ELKARTEAREN IKASTAROAK

### PINTURA IKASTAROAK

**Nagusiak:**
Martitzenetan
11:15etik 13:15era
18:00etatik 20:00etara
25 € hilero

**Umeak:**
Barikuetan
17:30etik 19:30era (7-10 urte)
18:30 – 20:00 (11-14 urte)
20 € hilero



### MARRAZKETA IKASTAROA

**Nagusi eta gazteentzat**
Martitzenetan arratsaldez,
17:00etatik 18:00etara
15 € hilero

**Izena emateko:**
Gizarte eta Kultura Etxean
Irakaskintza kalea 14-16
barrueta.arte@gmail.com



## ERROXAPE EMAKUMEEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK

**YOGA, BIZKAR ESKOLA, PATCHWORK-A, GITARRA, KOROA, JOSKINTZA, BOLILLOAK, MUSIKA TAILERRA (Erroxapeko martxa)**

* Ikasturte berria irailaren 17an hasiko da. Egun horretan zabalduko dute berriro lokala eta ikastaroetarako izen-ematea ere egun horretan hasiko da



# BEHARGINTZA




# MERKATARITZA



**ADI MERKATARI ETA HERRITAR!**

Urriaren amaieran badator BERTOKOA DALAKO, BERMEON EROSI Merkataritza kanpaina: BERMEON EROSI eta lortu zure saria



# BERDINTASUN SAILA

## BIZIRAUPENERAKO BRIKOLAJEA II

**Egunak:** urriaren 6tik azaroaren 17ra

**Ordutegia:** martitzenak arratsaldez; saio bakoitzak 2 orduko iraupena izango du

**Lekua:** Bermeoko Kultur Etxea

**Hizkuntza:** saioak gaztelaniaz izango dira, baina parte-hartzaile bakoitzak erosoen sentitzen den hizkuntzan hitz egin ahal izango du. Gidariak Belarriprest dira.

**Gidariak:** Ana Oceja Uribe eta Ana Fernández Martín

Elektrizitateko eta iturgintzako ikastaroak egin bazenituen, hemen dator hurrengo pausoa. Tailerraren helburua da tradizionalki emakumeok baztertuak izan garen esparru batean ahalduntzea, gure autonomia handitzea eta autoestimua indartzea.

Tailerrean honako eduki hauek landuko dira: tresna elektrikoen erabilera, pertsianen konponketa, bisagrak, sarrailak eta gidak konpontzea, baita etxeko beste konponketa praktiko batzuk ere.

**Izen-ematea:** irailaren 21etik 25era

**Posta elektronikoa:** berdintasuna@bermeo.eus

**Telefonoa edo WhatsAppa: 688 63 84 49**

Lekuak zozketa bidez esleituko dira, eta emaitza irailaren 29an jakinaraziko da.

**Eman izena eta ikasi etxeko konponketa praktikoak zeure kabuz egiten. Zatoz zure autonomia eta konfiantza indartzera!**



# ZESTA ESKOLA

**Probatu zesta punta Artza frontoian Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak amaitu ostean.**
**Iraileko martitzenetan eta eguenetan: 17:00etatik 17:45era.**

Bermeo JAI ALAI

# ZINEA

## NESTOR BASTERRETXEA ARETOAN

Astero filmen informazioa udalaren webgunean, Bermeo Zabaltzen APPan eta sare sozialetan zabalduko da. Sarrerak: salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

| SARREREN PREZIOA: | ORDUTEGIA: |
|---|---|
| **Zapatu eta domeketan:** 6,00 €<br>**Astelehenetan**, ikuslearen egunean: 4,50 €<br>**Umeen filmak:** 4,50 € | NAGUSIEN FILMAK<br>Zapatuetan eta domeketan: 19:30ean<br>Astelehenean (ikuslearen eguna): 19:00etan eta 21:30ean<br>UMEEN FILMAK<br>Zapatuetan eta domeketan: 17:00etan<br>*Oharra: ordutegiak aldatu ahal izango dira, filmak luzeak direnean. |

### Irailaren 26, 27 eta 28an

**Umeak: "Minions & Monsters" 90 min**
**Nagusiak: "La bola negra" 155 min**

### Urrian

**Umeak:**
**"Dino familia" euskaraz**
**"Tadeo Jones y la lámpara maravillosa"**
**"Marsupilami" euskaraz**
**"La patrulla canina: la dino pelicula"**
**"Doraemon: aventuras en el mundo del arte"**

**Nagusiak:**
**"En el corazón de la bestia"**
**"Digger"**
**"Inurri itsuak" euskaraz**
**"La invitación"**
**"Sentido y sensibilidad"**



# EUSKARA

## EUSKARA ESKOLAK

### Etorkinentzako eskolak




Harrera ikastaroa
Euskera ikasteko eta euskal kultura ezagutzeko lehen urratsak
**Urritik maiatzera**
Egun bi astean, ordu bi egunean
Ordutegi malgua
**Ikastaro osoaren prezioa:** 10€ + 17,50€ (eskola materiala)
**Izen-ematea:** 2026/09/01 - 2026/09/23, Berhaz bulegoan edo Gotzon Garitaonaindia euskaltegian

### Gurasoentzako eskolak




Seme-alabekin ohiko harremanak euskaraz izateko ikastaroa
Hasiera maila edo abiapuntua (A0, A1 edo A2)
**Urritik maiatzera**
Egun bi astean, ordu bi egunean
Ordutegi malgua
**Ikastaro osoaren prezioa:** 120€
* Hasiera mailaren arabera matrikula 4 ikasturterako izan daiteke (Euskara bonua).
* Matrikula ordaintzeko arazorik izanez gero, info + Berhaz bulegoan edo AEKn
**Izen-ematea:** 2026/09/01 - 2026/09/23, Berhaz bulegoan edo AEK euskaltegia

## BERBALAGUN

'ERAMAN EUSKARA PRAKTIKARA'
Informazioa eta izen-ematea; 607 609 580

## HELDUEN ANTZERKI TAILERRA

**Urritik ekainera bitartean**
Hasiera: Urriaren 7an
Eguaztenetan, 19:30etik 21:30era, Gizarte eta Kultura Etxean
**Izen-ematea:** Irailaren 7tik 30era, Berhaz bulegoan
Prezioa: 115€
Info+: www.bermeon-euskaraz.eus, Berhaz eta Euskera Saila




## DIRULAGUNTZAK

### GIDABAIMENA EUSKARAZ

Gidabaimena euskeraz prestatu eta azterketa teorikoa euskeraz egiten duten Bermeoko biztanleentzako dirulaguntza.
Eskaerak: urriaren 1etik 30era, Berhaz bulegoan eta egoitza elektronikoan
Info+: www.bermeon-euskaraz.eus, Berhaz eta Euskera Saila

### EUSKARA IKASTEKO

Euskara ikasteko dirulaguntzak. 2025/2026 ikasturtean edota udan, homologatuta dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten Bermeoko biztanleentzako dirulaguntza.
Eskaerak: urriaren 1etik 30era, Berhaz bulegoan edo egoitza elektronikoan
Info+: www.bermeon-euskaraz.eus, Berhaz eta Euskera Saila

# ERAKUSKETAK

## Arrantzaleen Museoan

### ‘OLATUAREN ENBATEAN. EMAKUMEAK ETA ITSASOA XX. MENDEAN’, ALDI BATERAKO ERAKUSKETA

Zalantza barik, ezin da gure herriko historia hurbila eraiki emakumeak lan-munduan ez ezik, familian ere izan duen funtsezko papera kontuan hartu barik, rol horrek Bermeo eraikitzea eta garatzea errazten duelako.

**94 688 11 71**

**arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus**

**Museoko ordutegian**



## Berhaz Bulegoan

### ITSAS PALETA

Benito Barrueta arte elkarteko kide batzuek hartzen dute parte; itsasoaren inguruko koadro batzuk aurkeztu dituzte. Margolan eta argazki batzuen bidez, gertuko eta urrutiko itsas irudi batzuk errepresentatu dituzte.

**Bulegoko ordutegia:**

**Astelehenetik barikura: 08:00-14:30**

**Apirilera bitartean**



## BISITA BEREZIA
## BERMEO ERAIKI ZUTEN GIZON ETA EMAKUMEAK

ORDUTEGIA: 12:00

AZALPENA: Bermeo nola garatu zen hobeto ulertzeko, emakumeen begirada falta zitzaigun

Etorri udako domeketan gure bisita gidatura eta deskubritu emakumeek gure historia hurbilean izan duten rol erabakigarria, kostaldeko gizonen lanarekin batera gure herria eraiki eta garatzea ahalbidetu duena



Etorri domekaz eta ezagutu kostaldeko historia osoa

**Hizkuntza:** Elebitan

**Informazioa eta erreserbak: 94 688 11 71 // arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus**

**Prezioa: Museoaren sarrera prezioan barne.**

**Domeketan - Irailean bakarrik**




## Azaroan...

Halloween Metal Fest
'Bidutzi' umeentzako antzerkia
San Martin Eguna
San Martin auzoko jaiak

***Jarri hemen zure publizitatea***

Prezioa: 250 €

**94 617 91 57**
**kultura@bermeo.eus**

www.bermeo.eus

Lege-Gordailua: *BI-3421-2009* · Argitaratzailea: *Bermeoko Udala*